



Jose Ignazio Jauregi andoaindarrari umemetatik datorri **txoriekiko zaletasuna**. Zaletasun horretan pauso bat gehiago eman, eta **ornitologian** eta hegaztien **eraztunketan** aditua da gaur egun.

# Jose Ignazio Jauregi, hegaztiak eraztuntzen

## Hegaztien munduko zenbait bitxikeri

Urteotan egindako azterketa lanean, bitxikeria bat baino gehiago topatu dute Jose Ignaziok eta bere lankideek. Horien artean, Leitzan eta Ataun inguruan aztertutako bi urxoxo daude. "Urxoxoa txuri-beltza izaten da. Duela denbora gutxi aurkitu genuen Leitzan inguruan guztiz beltza zen urxoxoa eta aurren, ezaugarri bereko beste bat topatu genuen Ataunen. Momentuz ezaugarri horiekin aurkitu diren bakarrak dira. Topatu genuenetako bat emea zen, eta umeak eginda zegoen, baina ohiko izaten da mota horretako bitxikeriek animaliei arazoa ekartzea".

Erreportaia lantzeko harrapatutako bi martin arrantzaleetako batek ere bazuen bitxikeria

bat: mokoia ohi baino motzagoa zuen. "40 milimetro inguruko topatu dute martin arrantzaleek eta erreportairako harrapatutakoak, arrak, ia 8 milimetro motzagoa zuen. Horrek ere eragozpenak eragin diezazkioke bizi-raupenerako".

Urrutiko lurraldetan eraztuntutako hegaztiak ere harrapatzen dituzte Gipuzkoako zeruetan. "Estatuan barrena Ikonako kideek eraztuntutakoak, Belgikan, Frantzia, Ingalaterran, Alemanian..., toki askotan kontrolatu dituzten hegaztiak harrapatzen ditugu. Kasu horietan berehala jakinarazten zaie jatorrian eraztundu zutenei, hegaztien mugituta kontrolatu ahal izateko".



kegu nondik datorren eta nork jarri zion eraztuna".

Jose Ignazio-ren lana ez da amaitzen txoriari eraztuna jarritakoan. Txoria gaztea edo heldua den jakiten du lumen egoera, tamaina edota kolorearen arabera. Zenbait hegaztien adina zehazteko, beharrezkoa da begien kolorea ere begiratzea. Harrapatutakoa arra edo emea den jakiteko lumak, ahosapaia, hegaleen tamaina edo sabelaldearen tamaina begiratzen ditu Jose Ignaziok. Ondoren, neurketa ezberdinak egiten dizkie txoriei: hegaletako lumak, mokoaren luzera, burua eta mokoaren baturaren luzera, gorputzeko grasa kopurua, pisua..., Datu

guztiak txukun-txukun biltzen ditu Jose Ignaziok, urte amaieran Aranzadira bidaltzeko. Aranzadiko eraztunketa sailean gorde eta aztertzen dira urte guztiak zehar bildutako datu horiek guztiak.

## Eguna argitu aurretik

"Kanpoan, aire librean egindako lana izugarri gustatzen zait. Etengabe batera eta bestera ibiltzen gara txoriak aztertzen eta datuak biltzen. Askotan gogorra egiten da; goizean goiz, eguna argitu aurretik mugitu beharra, errekan edo paduran sartu eta bustita ibiltzea... honetan aritzeko, zaletasun handia izan behar duzu", azaldu du Jose Ignaziok.

Txingudiko eraztuntzaileen elkarteko kide da Jose Ignazio eta elkarteko gainerako kideekin batera, hegaztien inguruko hainbat ekimenetan



Letra eta zenbaki bidezko kode bat ageri da eraztunetan, txoriaren nortasun agiriaren parekoa

parte hartzen du: "Eraztuntzaile gisa, hainbat proiektutan egiten dut lan. Esaterako, Jaizubian eta Oriako Motondo inguruan habia egiten duten hegaztien monitorizazioan; erreka ingurutako hegaztiak eraztuntzen, bai Gipuzkoan baita Nafarroako kantauri isurialdean ere; bidaian doazen hegatzabalak aztertzen; habian dauden kaio gazteak eraztuntzen... Pasa zen

urtera arte Plaiaundiko parke ekologikoan ere lan handia egin dugu. Horrez gain, aurtengo udan Doñanako estazio biologikoan lan egiten duten eraztuntzaileekin batera lan egiteko aukera izan dut".

Urte guztian izaten dute zereginik eraztuntzaileek. "Urtaro bakoitzak bere lana eskatzen du. Batzuetan, bertan habia egiten duten hegaztiak aztertzen ditugu, beste batzuetan, negua pasatzera etortzen direnak eta beste zenbait bolaratan, gure lurraldea geldialdi laburra egiteko soilik erabiltzen duten hegaztiak aztertzen aritzen gara. Gure lana urtaroen arabera moldatzen dugu.

Oso interesgarria da, etengabe ikasten aritzea eskatzen duena", azaldu du Jose Ignaziok.

## Luma-aldaketak

Jose Ignazio Jauregiri bereziki gustatzen zaio hegaztien luma aldaketak aztertzea. "Especie bakoitzak modu ezberdinean egiten du aldaketa hori, beharren arabera. Lumak aldatzeko indar eta energia asko gaitzea ekartzen die eta oso garrantzitsua da garai egokienean egitea. Negua Sahara basamortutik gora pasatzen duten txoriek, udan egiten dute luma aldaketa, migrazioarako bidaia hasi baino lehen. Urte horretan jaiotako kumeek eta



Hegaztiak eraztuntzeko lana gogorra egiten da batzuetan, zaletasun handia behar da

habia egiten duten txori helduek batera egiten dute luma aldaketa hori. Negua pasatzera Saharatik behera joaten diren hegaztiak berriz, atzeratu egiten dute luma aldatzeko garaia, bidaia luze hori egiteko ahalik eta energia gehien gordetzeko. Euren neguko bizilekura iritsi ondoren aldatzen dute lumajea, neguan, osterara ere Europara itzultzeko garaia iritsi baino lehen".

## Arratsalde bat Leitzaranen barrena txoriak eraztuntzen

Bere etxea balitz bezala ezagutzen ditu Jose Ignaziok Leitzaran errekan inguruak. Ordu luzeak eman ditu bertan, hegaztiak eraztundu eta aztertzen. **Ur xoxoak** (*Cinclus cinclus*) eta **martin arrantzaleak** (*Alcedo atthis*) dira, batez ere, bertan harrapatzen dituen txoriak, nahiz eta **buztinikara horia** (*Motacilla cinerea*) bezalako hegaztiak ere ikusi ohi dituen.

- 1.- Martin arrantzalea arra edo emea den jakiteko, mokoaren koloreari begiratu behar zaio. Emeez, naranja kolorekoa izaten dute mokoaren azpialdea eta arrek, guztiz beltza.
- 2.- Martin arrantzaleen adina antzemateko lau ezaugarri begira dakizkieke.



Martin arrantzale emea.



Hegaztiaren tamainaren arabera eraztuna jartzen zaie.

- a) Mokoaren puntan txuriunea ageri bada, "Diamante txuria" bezala ezaguna, txoria gaztea denaren seinale. Txori helduagoek txuriunea galdu egiten dute mokoia pixkanaka igatuz joaten zaielako.



Martin arrantzale arra.

- b) Hankak beltzak dituen txoria gaztea da. Heldutasunean, kolore gorrikoak izaten dituzte hankak.
- c) Martin arrantzale gazteak luma ilunagoak izaten ditu paparrean.
- d) Lumen koloreak ere txoriaren adina zehazten lagun dezake. Helduek kolore biziagoak izaten dituzte.



35 gr. inguru pisatzen dute martin arrantzaleak.

Hegaztiak eraztuntzen ikasi nahi duenak,  
<http://www.aranzadi-zientziak.org> orrian aurkituko du  
betebeharreko baldintzen inguruko informazio osoa.

 **kutxa**  
zer nahi duzu bihar?